



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2023

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

✉ kluster@soziolinguistika.eus

📍 www.soziolinguistika.eus

📘 slklusterra

🐦 @slklusterra



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eginez eta bertako zein nazioarteko soziolinguistika ezagutza kudeatuz egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, metodo zientifikoa baliatuz jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin elkarlanean. Soziolinguistika Klusterrak euskararen hiztun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolinguistikoa gizartearen ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa du.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
(CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da.
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA URTEKO TXOSTENA 2023



Osaketa grafikoa: **ZIRRIARRA** ESTUDIO GRAFIKOA

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 ANDOAIN

BAZKIDEAK

OHOREZKO BAZKIDEA:



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artez Euskara Zerbitzua
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebeta elkarte
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkarte
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Hezten Aisialdi Euskaltzalea
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E. Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Zumaiaiko Udala



Errenteriako Udala



ikastolenelkarte



euskaltzaleen topagunea



LABORAL kutxa



Zumaiaiko Udala

NORBANAKO BAZKIDEAK:
68 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2023

AURKIBIDEA

1	2023ari buruz	6 or.
2	Nortasuna eta egitura	7 or.
	2.1 Erabaki-guneak	7 or.
	2.2 Barne-proiektuak	9 or.
3	PROIEKTUAK	11 or.
	3.1 Aldahitz Ikerketa	12 or.
	3.2 Itzulunguru.....	13 or.
	3.3 Hirigintza eta euskara	14 or.
	3.4 Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa	15 or.
	3.5 Jendaurrean Erabili	16 or.
	3.6 Gipuzkoa Berdinago	17 or.
	3.7 Bilboko gurasoen hizkuntza praktikak eta bizipenak	18 or.
	3.8 Eskoletako hizkuntzen mapa.....	19 or.
	3.9 Zumaiako eskoletako neurketa	19 or.
	3.10 Immigrazioa Altzan 1950-1970	20 or.
	3.11 Immigrazioa Gipuzkoan: Gaztelania.....	20 or.
	3.12 HIZKUNTZEN ERABILERAREN neurketen datu basea	21 or.
	3.13 Euskararen Adierazle Sistema.....	21 or.
	3.14 Kirol eremuko hizkuntzen erabileraren neurketak.....	22 or.
	3.15 Kirol[h]ariak proiektu pilotuaren ebaluazioan aholkularitza.....	22 or.
	3.16 Euskara kirolkide	23 or.
	3.17 Ahozko komunikazioaren lanketa ikastaroak.....	24 or.
	3.18 Berba-lapiko ikerketa proiektua	25 or.
	3.19 Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sariak.....	26 or.
	3.20 Euskal Soziolinguistika Jardunaldia	27 or.
	3.21 BAT Soziolinguistika aldizkaria.....	28 or.
	3.22 Soziolinguistika Albistaria	29 or.
4	Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak	30 or.
	4.1 Aurkezpenak eta formakuntza.....	30 or.
	4.2 Kongresuak, jardunaldiak eta mintegiak.....	31 or.
	4.3 Egitasmo berezietan parte hartzea	31 or.
	4.4 Harremanak.....	32 or.
5	Balantze ekonomikoaren laburpena	34 or.

1

2023ari buruz

Euskararen biziberritzearen alde lanean dihardugunon artean handia da parez pare ditugun erronken kontzientzia. Munduko hizkuntza aniztasuna eta hizkuntza gutxituen etorkizuna mehatxatzen dute gaur egun indarrean dauden hamaika joera sozial, ekonomiko, kultural eta ekologikok. Euskararen biziberritzearen aldeko bulkada bere bidea oztopatzen duten indarrekin kontrajartzen da eta gizartea eraldatzea bilatzen du gaur egungo eta biharko baldintza sozialetan euskaraz bititzea posible izan dadin.

Esan daiteke hiru ardatzetan adi egotea eta lan egitea dagokigula horretarako. Batetik, hitzun-komunitatearen egoeraz jabetu behar dugu. Euskaldunak zenbat garen, zenbat erabiltzen dugun hizkuntza bakoitza, zertan dihardugun, nondik nora gabiltzan, hazten edo murrizten ari ote garen... Adierazle soziolinguistikoen jarraipena, hizkuntzen erabileraren kale neurketak, unibertsitatekoak, kirol esparrukoak, hizkuntza aniztasunaren mapak eta abar funtsezko tresnak dira egoeraren argazki ahalik eta fidelena eskuratzeko. Eta behar dugun heinean fokua dagokion interes-gunean finkatu eta gertatzen ari denari gertuagotik begiratzeko.

Bigarrenik, hizkuntza biziberritzearen testuinguruan hitzunen bizipenak ahalik eta hobekien ulertzeko saiakera egin behar dugu. Eta bizipen horiek ulertzetik, egoeran esku hartzeko gakoak identifikatzea litzateke helburua. Eskolak euskaldundutako belaunaldiak gurasotasuna bititzeko duen modua ulertu, ingurune erdaldunenetan ahozkotasuna egoki lantzearen potentziala ustiatu, hizkuntza ohiturak aldatzeko mekanismoak martxan jarri, euskararen erabilera erraztuko duten babesguneak bilatu,

erakunde-kulturan hizkuntza kudeaketa barneratzea bultzatu... Ezagutza berria sortu eta tresna praktiko eraginkorretan bilakatzea funtsezkoa izango da.

Hirugarrenik, ustez soziolinguistikaren eremutik kanpokoak diren joerei erreparatzea dagokigu. Gure bizimoduan eragin esanguratsua izan duten, duten edo izango duten denetariko joeren alderdi soziolinguistikoaz ari gara. Globalizazioak edo digitalizazioak azken hamarkadatan bititzeko modua eta pentsatzeko modua moldatu digutela ikusten dugun bezala, etorriko diren fenomeno esanguratsuenei erreparatu behar diegu, euskara erabiltzerakoan alda ditzaketen baldintzak aztertzeko. Eremu honetan kokatzen da hizkuntza teknologien inpaktuan sakontzeko ahallegina edo hirigintzaren bilakaerak herri ertainetan ekarri duenari begiratzeko.

Soziolinguistika Klusterra sortu zenetik oinarri gisa funtzionatu duen printzipioa da honetarako guztirako elkarlanean diharduten pertsona eta eragileen sare trinkoaren beharra. Ezagutza zientifikoa sortzeko, eremu aplikatura eramateko, harremanak errazteko, eztabaidak ebazteko eta norabideak argitzeko ahulegiak gara isolatuta bagabiltza. Honegatik guztiagatik dihardugu euskal soziolinguistika ezagutzaren sistemak funtsezkoak dituen topalekuak, hedabideak eta elkarlan guneak amesten, pentsatzen, bultzatzen eta eraikitzen. Orri hauetan ikus daitekeen bezala, horretan jardun dugu 2023an eta bide berari eustea da aurrera begirako asmoa.

Mertxe Mugika Balanzategi.
Soziolinguistika Klusterraren
lehendakaria



2

NORTASUNA ETA EGITURA

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak euskara biziberritzeko erreferentziazko ikergune izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz eta berrikuntza bultzatuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** metodo zientifikoan oinarrituta zorrotasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.
- **Elkarlana:** osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizartearekiko ardura:** euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatu du bestelako gaietan ere gizarte berdinzaleago baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurralde guztietan jarduteko bokoia du.

2.1 ERABAKI-GUNEAK

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabaketan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu. 2023ko apirilaren 25ean Hendaian egin zen Soziolinguistika Klusterren Ohiko Batzar Orokorra.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia.

2023ean ondorengoek osatu dute Zuzendaritza Batzordea:

- Ruben Beitia (Emun Kooperatiba Elkarte)
- Maite Asensio (Hezten)
- Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua)
- Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterra)
- Helene Armentia (Elhuyar Aholkularitza) - Diruzaina
- Eneritz Garro (HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea)
- Ibon Manterola eta Josune Etxaniz (Eusko Ikaskuntza)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) -Idazkaria
- Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea) - Lehendakariordea
- Mertxe Mugika (AEK) - Lehendakaria
- Miren Segurola (UEMA)
- Jon Zarate (Euskal Herriko Unibertsitatea)



BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2023an 10 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Arantza Egiguren Aizpiolea - *Praktikaria eta bekaduna*
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Paula Laita Pallares
- Imanol Larrea Mendizabal - *Zuzendaria*
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain



2.2 BARNE-PROIEKTUAK

2020 urtean onartutako 2020-2023 egitasmo estrategikoaren baitan, hainbat proiektu estrategiko garatzea aurreikusi zen. 2023an ondorengoei heldu zaie:

BATZORDE ZIENTIFIKOA

Batzordearen helburuak, eginkizunak, funtzionamendua eta kideen profila definitu dira prozesu parte hartzaile baten bidez bulegoko eta zuzendaritzako kideekin batera. 2024an abian jartzeko prest utzi da.

KOMUNIKAZIO PLANA

Proiektuen komunikazio-lana sistematizatu eta hobetzea bilatzen da, besteak beste, argitalpen irizpideak berrikusiz. Nazioarteko ikergune eta eragileekin elkarrekin areagotzeko bideak zabaldu nahi dira eta Euskal Herri osoan presentzia eta eragina bermatzeko bideak jarri. Estrategia digitala definitzeko prozesua aurrera eraman da.

NAZIOARTEKOTZEA

Nazioarteko harreman-sareak eraikitzen lan egin da, batez ere Europako hizkuntza gutxituetako komunitateetako eragileekin. NPLD (Hizkuntza Aniztasuna Bultzatzeko Sarea) sarean parte hartu eta UniNet ikertzaileen azpi-sarean sortzea bultzatu da. Euskal soziolinguistika nazioartean zabaltzeko ekimenak, Europako erakundeen finantziazioa bilatzekoak eta beste eragileekin proiektuak elkarlanean garatzeko aukerak lantzeko urratsak eman dira.

BIKAIN TASUN PLANA

Pertsonen garapenerako ekimenak egin dira arrisku psikosozialen inguruan. Diagnostikoa osatu da eta ekintza plana definitu da. Gainera, arlo horretan esku hartzeko, Mondragon Unibertsitatearekin *Bateratzen* metodologia aplikatzeari ekin zaio.



Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten egitasmoak

3

PROIEKTUAK

1	Aldahitz Ikerketa.....	12 or.
2	Itzulinguru	13 or.
3	Hirigintza eta euskara.....	14 or.
4	Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa	15 or.
5	Jendaurrean Erabili.....	16 or.
6	Gipuzkoa Berdinago	17 or.
7	Bilboko gurasoen hizkuntza praktikak eta bizipenak	18 or.
8	Eskoletako hizkuntzen mapa	19 or.
9	Zumaiako eskoletako neurketa	19 or.
10	Immigrazioa Altzan 1950-1970	20 or.
11	Immigrazioa Gipuzkoan: Gaztelania.....	20 or.
12	HIZKUNTZEN ERABILERAREN neurketen datu basea.....	21 or.
13	Euskararen Adierazle Sistema	21 or.
14	Kirol eremuko hizkuntzen erabileraren neurketak	22 or.
15	Kirol[h]ariak proiektu pilotuaren ebaluazioan aholkularitza.....	22 or.
16	Euskara kirolkide	23 or.
17	Ahozko komunikazioaren lanketa ikastaroak.....	24 or.
18	Berba-lapiko ikerketa proiektua.....	25 or.
19	Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sariak.....	26 or.
20	Euskal Soziolinguistika Jardunaldia.....	27 or.
21	BAT Soziolinguistika aldizkaria	28 or.
22	Soziolinguistika Albistaria	29 or.

3.1

Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen lan-ildoak.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola
(Soziolinguistika Klusterra)

Bulegoko langileak | Maialen

Iñarra eta Olatz Bengoetxea

Garapen Taldea | Jone Urkizu
Mendiola (Emun), Maite Unzalu
Ormaetxea (Elhuyar), Malen Eugi
eta Maite Mangado Fernandez
(Euskarabidea), Nekane Jauregi
Arruabarrena eta Olatz Elustondo
Zubiria (GFA), Nerea Ibarluzea
Eguren (Ahize-AEK), Nerea
Mandiola Solozabal (Artez), Sonia
Isasi Zubieta (HPS) eta Xuban
Zubiria Elexpe (Euskaltzaleen
Topagunea)

Uler-saioak aditu-taldea |

Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar),
Raul Perez Martinez (Ahize-AEK),
Xabier Apaolaza Etxeberria eta
Xabi Bosch Urdanibia (Emun),
Olatz Bengoetxea Manterola
(Soziolinguistika Klusterra).

Aholkulariak | Pello Jauregi
Etxaniz (EHU), Estibaliz Amorrortu
Gomez (Deustuko Unibertsitatea
– Equiling), Ane Ortega Etcheverry
(Begoñako Andra Mari Irakasleen
Unibertsitate Eskola – Equiling),
Jaime Altuna Ramirez (EHU –
Equiling)

Aldahitz ikerketa

2023-2026 lau urteko zikloan Eusle, Ulerrizketa eta Uler-saioak metodologiak konbinatuko dituen sistema integralaren garapenari bultzada eman go zaio. 2023an Uler-saioak metodologian aditu-taldea sortu da eta haren formazioa osatu da. Oinarri horretatik, trebatzaile berriak formatu dira. Horiekin esperientzia berriak antolatu eta abiatu dira, proiektuko partaide diren erakundeen laguntzarekin. Metodologia horren ikerketarako euskarriak berriro dira eta 2020-2021ean eginiko esperientzia pilotuen emaitzak kaleratu.

Gipuzkoa Arigune proiektuaren definizioan ekarpena egin da eta Aldahitzekin lotura landu da.

Eusle eta Ulerrizketa metodologietan oinarritutako aurreko urteetako esperientzien bilketa egin da, metodologiaren mintegia antolatzeko oinarriak landu dira eta Equiling ikerketa-taldearekiko harremanean urratsak eman dira.



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/aldahitz-ikerketa/>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Etorkizuna Eraikiz
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea

3.2

Itzultzaile neuronalaren erabilera hizkuntza-jarduera arautuetan: distortsioak, gatazkak, egokitzapenak eta berrikuntzak.

Zuzendaria | Eduardo Apodaka
(Innoklab - Euskal Herriko Unibertsitatea)

Bulegoko langileak | Asier Basurto

Garapen Taldea | Eduardo Apodaka (EHU), Asier Amezaga (EHU), Igor Astibia (Hekimen), Maddi Etxebarria (Elhuyar), Leire Lizarralde (Elhuyar), Amaia Jauregi (Elhuyar), Josu Aztiria (Orai), Asier Basurto (Soziolinguiстика Klusterra), Natalia Elvira (Osakidetza), Aitor Ogiza (AEK), Beñat Erezuma (Berritzeguneak)

Esku hartzeetako partaideak:
| Arabako Psikiatria, Argia, Barrualde-Galdakao ESla, Cikautxo, Donostialdea ESla, EHU-Kazetaritza, EHU-Komunikazioa, Enpresabidea, AEK-Ermua, Euskalit, Gipuzkoako Foru Aldundia-Gizarte Politikak, Irutxuloko Hitza, Laboral Kutxa, Lizardi BHI, MU-Humanitate Digitalak, AEK-Mungiako Udala, AEK-Oarsoaldea, Orioko Udala, AEK-Santurtzi, Unamuno BHI, Uribe-Kosta BHI, Vitoria-Gasteizko Udala-Kirol Zerbitzua, Osakidetza-Zuzendaritza Nagusia

Itzulinguru

Itzultzaile automatikoak sortzen dituen eraginen inguruan ikertzeko proiektuan hizkuntza-praktika arautuak dituzten 7 testuingurutan 25 bat esku hartze aurrera eramanez garatuko da 2023 eta 2024 urteetan. Ikerketa eta esperimentazioa enpresetan, administrazio publikoan, bigarren hezkuntzako zentroetan, unibertsitatean, osasun sistema publikoan, eus-kaltegietan eta hedabideetan egingo da.

2023an parte hartzaile guztiak kontaktatu dira, gaur egun egiten den itzultzaile automatikoaren erabilera aztertu da, parte hartzaileei formazioa eman zaie, esku hartzeak diseinatu dira eta martxan jarri dira.



➔ <https://soziolinguiстика.eus/eu/proiektua/itzulinguru/>

Babesle-laguntzaileak:

- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.3

Hirigintza eta lurralde antolaketak kaleko hizkuntza erabilerarekin duten lotura aztertzeko metodologiaren garapena.

Hirigintza eta Euskara

80. hamarkadatik egiten dira kaleetako neurketak. Lau hamarkadatan gure kaleak eta espazioak asko aldatu dira. Lurraldea antolatzeko ezarri den hiri ereduak eragina izan du, beste faktore globalen artean, gure eguneroko bizitzan, gure harremanetan eta hizkuntza ohituretan. Erabileraren kale-neurketen emaitzak interpretatzeko hirigintzari lotutako faktoreetan sakontzeko beharretik sortu zen proiektu hau.

2023an, lehenik eta behin, aztergaiaren oinarri teorikoak finkatu ditugu. Ikerketaren hipotesia da zaintzak erdigunean jartzen ez dituen hirigintza-ereduak eragin mugatzailea duela hizkuntza gutxituen kale-erabileran.

2023an bi udalerritan egin da datuen bilketa eta analisia: Zarautzen eta Zornotzan. GIS teknologia baliatu da datuen bisualizazio eta azterketarako. Horrela, auzoz auzoko errealitatea sakon ezagutu da eta guneen arteko alderaketak egin dira.

Bulegoko langileak | Olatz

Altuna eta Asier Basurto

Ikerketa taldea | Koldo

Telleria, Irati Otamendi, Ainhoa

Guerras, Oihana Santolaria,

Uxue Leonardo, Leire Solana

(Botoi ikerketa taldea-UPV/EHU)

eta Julen Landa (GISLAN)

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.4

Beasaingo gazteen hizkuntza-aktibazioa sustatzeko proiektua.

Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa

Euskararen biziberritze-prozesuaren sustapenean ekarpena egin nahi duten tokian tokiko ekimen sozialetan gazteek jokatzten duten paperaz egin da gogoeta, modu parte-hartzailean, Beasainen. Horretarako, 2021-2022 epealdian, Beasaingo Aittu! zein AittuGazte! ekimenen sorkuntza aztertu da tailer formatuko lan-saioen, elkarrizketen, solasaldien edota gazte-espazioetara egindako bisiten bidez.

2023an ikerketa-prozesua deskribatzen duen txostena osatu da eta euskarara eta gazteen ekimenari buruz identifikatutako ideia-gakoak hedatu dira: Udal-ekin sarean, jardunaldietan...

Zuzendaria | Zesar Martinez
(Parte Hartuz- Euskal Herriko Unibertsitatea)

Bulegoko langilea | Maialen Iñarra

Partaideak |

- Miren Uriarte (UPV/EHU – Parte Hartuz)
- Patxi Saez (Aittu! euskara elkarte)



➔ www.soziolinguistika.eus/aktibazioa

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.5

Komunikazio publikoan hizkuntza-praktika egokiagoak eta eraginkorragoak lortzeko elkarlanean diharduten erakundeen praktika-komunitatea.

Jendaurrean erabili

2015 eta 2023 urteen artean proiektuak egindako ibilbidea ebaluazio errealistaren ereduaren arabera aztertzeke prozesua egin da. Ibilbide horretan praktika komunitateko erakundeetan aktibatu diren mekanismoak eta hauekin lotutako efektuak identifikatzeko prozesua. Azterketan horretatik, sistematizazio sortzailearen bidez, komunikazio publikoan euskararen tokia handitzeko gakoak identifikatu dira.

Proiektuaren ibilbide honen azken emaitza gisa, erakundeen komunikazioan hizkuntzak kudeatzeko gida dinamikoa sortuko da eta honen presaketan abiatu da 2023an.

Bulegoko langilea | Asier Basurto

Ikerketa-taldea | Inazio Marko (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kontxesi Berrio-Otxoa (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Gida sortzeko lan-taldea | Maddi Etxebarria (Elhuyar) eta Oihan Zubizarreta (Emun)

Praktika Komunitatea | AEK, Donostia Zinemaldia, Elhuyar, Emun, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Legebiltzarra, Getxoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Guggenheim Bilbao Museoa, LAB, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Mutualia, Sakanako Mankomunitatea



➤ www.jendaurrean.eus
<https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/jendaurrean-erabili/>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3.6

Komunikazio publikoan hizkuntza berdintasunerantz urratsak emateko elkarrekin diharduten Gipuzkoako erakundeen taldea.

Gipuzkoa Berdinago

2016tik aurrera Gipuzkoa Berdinago adierazpena prestatu eta adostu zuten kideek lehendabizi eta bertan jasotako konpromisoak betetze alde-
ra urratsak eman dituzte ordutik. 2022an bi urtera begirako helburuak finkatu ditu erakunde bakoitzak, komunikazio publikoan euskarari toki handiago emateko.

Gipuzkoa Berdinago Buletinaren bi zenbaki gehiago zabaldu dira, Gipuzkoa Berdinago proiektuari lotutako albisteak, Gipuzkoako entitateek komunikazio publikoan hizkuntza berdintasunerantz emandako urratsen ingurukoak eta nazioartean komunikazio publikoaren esparruko berrikuntza eta praktika onen ingurukoak bilduta

Urtearen azken zatia Gipuzkoa Berdinago Foroa antolatzeari eskaini zaio (2024ko urtarrilean gauzatuko zena).

Bulegoko langilea | Asier Basurto

Koordinazio Taldea | Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia), Elene Arrazola (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Gipuzkoa Berdinagoko kideak | Adegí, Basque Culinary Center, Bera Bera, CAF, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako Udala, DYA, Eibar SD, Euskal Herriko Unibertsitatea, Fagor, Kaiku, Kutxabank, Kutxa Fundazioa, Laboral Kutxa, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Mutuaia, Real Sociedad eta Gipuzkoako Foru Aldundia



➔ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdtintasuna/gipuzkoa-berdinago>

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.7

Euskararekin lotutako bizipenak eta harreman-sareak ikertzeko eta erabilera areagotzeko dinamika eraginkorrek diseinatzeko proiektua.

Bilboko gurasoen hizkuntza praktikak eta bizipenak

Haur txikiak dituzten Deustuko eta Alde Zaharreko gurasoekin egin da ikerketa. Guraso horien analisi etnografikoa egin da, hiriko gurasoen errealitate soziolinguistikoko orokorrera hurbildu ahal izateko. Ikerketarako metodologia kualitatiboak baliatu dira, hala nola behaketak, norbanakoen elkarrizketak eta talde-elkarrizketak.

Aztertu diren gurasoen profilak bi izan dira; batetik, euskaraz gaitasuna duten eta egunerokoan hitz egiten saiatzen direnak, eta bestetik, euskaraz gaitasun txikia dutenak eta kasu batzuetan hizkuntza-muda egin dutenak.

Solasaldietan aztergai izan dira norbanakoen ezaugarriak, euskararen inguruko iritziak, usteak, bizipenak, familiako hizkuntza-praktikak, hizkuntza-mudak, seme-alaben hizkuntza hautuak, etab.

Zuzendaria | Jaime Altuna (AFIT – Euskal Herriko Unibertsitatea)
Bulegoko langilea | Olatz Altuna
Partaidea | Josu Ozaita (ikerlaria)



Babesle-laguntzaileak:

- Bilboko Udala – Euskara Zerbitzua
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.8

Hiru ikastetxetako hizkuntza aniztasunaren diagnostikoa.

Bulegoko langileak | Belen Uranga eta Paula Laita

Partaideak |

Garabide Elkartea, Unamuno institutua, Araiaiko Herri Eskola eta Eguzkibegi Ikastola

Babesle-laguntzailea:

- Eusko Jaurlaritza –
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia



Eskoletako Hizkuntzen Mapa

Garabide Elkartearen “Munduko hizkuntza gutxituak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan” proiektuaren helburua EAEko 3 hezkuntza-komunitate formatzea eta aktibatzea da. Horretarako, herri indigenei eta hizkuntza gutxituei buruzko kontzientzia kritikoa sustatzen du giza eskubideen, generoaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

Hori lortzeko proiektuak distantzia luzeko begirada zuzenduko die hegoaldeko herrialdeei eta, distantzia laburrekoa, ikastetxeetan bertan eta, ondorioz, euskal gizartean oro har dauden hizkuntzei eta kulturei. Soziolinguistika Klusterrak gai horien inguruan ikertuz egin dio ekarpena proiektuari. Ikerketa Araiaiko Herri Eskolan, Galdakaoko Eguzkibegi Ikastolan eta Bilboko Unamuno Institutuan egin da.

Ikerketarako teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili dira ikasleen, irakasleen, zuzendaritzaren eta gurasoen iritzia aztertzeko; inkestak, eztabaida taldeak eta elkarriketa sakonak egin dira, baita ikasleekin partekatutako zirkuluen ariketak ere.

Aztertu diren gaiak lau multzotan sailka daitezke: (1) norberaren hizkuntza-biografia, (2) munduko hizkuntza aniztasuna, (3) tokiko hizkuntza aniztasuna eta (4) eskolako hizkuntza aniztasuna.

➤ <https://euskalankidetzahegoa.ehu.es/es/projects/7482>

3.9

Erabileraren bigarren neurketa.

Bulegoko langileak | Belen Uranga

Partaidea | Larraina euskara elkartea

Zumaiako eskoletako ikerketan aholkularitza

Zumaiako hurrek euskararekin duten harremanaren gaineko ikerketa abiatu zen 2021ean. Inkesta kuantitatibo zabala egin zen eta ikastetxetako hizkuntza-erabilera neurtu zen behaketa bidez. 2023an erabileraren bigarren neurketa bat egin da eta emaitzak argitaratu dira artikulu zientifiko batean.

Soziolinguistika Klusterrak aholkularitza lanak egin ditu neurketaren diseinuan, landa lanaren jarraipenean eta datuen ustiaketan. Gainera, neurketarako beharrezkoak diren baliabide teknikoak (aplikazioa datu-basea...) eskaini dizkie arduradunei.

Babesle-laguntzailea:

- Zumaiako Udala



Zumaiako Udala

3.10

Espainiako Estatuko lurraldeetatik Altzara heldutako en hizkuntzarekiko bizipenen eta jarrerren ikerketa kualitatiboa.

Bulegoko langileak | Belen Uranga, Paula Laita eta Asier Basurto

Immigrazioa Altzan 1950-1970

Elkarrizketa sakonak eta eztabaida-taldeak baliatu dira 1950eko hamarkadatik 1970ekora heldutako pertsonen, horien ondorengoen, garai hartan dagoeneko Altzan bizi zirenen eta horien seme-alaben ikuspegiak jasotzeko.

Altzako kasua, XX. mendean Espainiatik nagusiki Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait herri eta hiritara izandako migrazio-prozesuaren testuinguru historiko, sozial eta demografikoan aztertu da. Gainera, nazioartean eta Euskal Herrian migrazio fenomenoaren eta hauen alderdi soziolinguistikoen azterketan aurrez egindako lanak eta marko teorikoak baliatu dira oinarri gisa. Gainera, fenomeno historiko horren ezagutzak gaur egungo migrazioetan euskararen presentzia handitzeko izan dezakeen aplikazioa aztertzea bilatu da proiektuarekin.

Babesle-laguntzaileak:

- Donostiako Udala – Ekialdeko Barrutiko Batzarra eta Euskara Zerbitzua



3.11

Hizkuntza jarrerren eta bizipenen gaineko ikerketa kualitatiboa.

Bulegoko langileak | Belen Uranga eta Asier Basurto

Jatorritik gaztelania hiztun diren migratzaileen jarrerak eta bizipenak Gipuzkoan

Gipuzkoako Hizkuntza aniztasunaren mapekin abiatutako lan-ildoan kokatzen den proiektua da. Lehenago Gipuzkoako migratzaileen hizkuntza-bizipenak eta jarrerak ikertu ostean, 2023an euren jatorrizko herrialdetik gaztelania hiztun direnen taldearengan jarri da arreta.

Ikerketa kualitatiboa diseinatu da, informatzaileen profila definitu da, kontaktazioa egin da eta landa lana bera gauzatu da. Zehazki 20 elkarrizketa sakon egin dira, profil desberdineko pertsonekin. 2024an jarraituko du ikerketak.

Babesle-laguntzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundia- Hizkuntza Berdintasuneko Zerbitzua



3.12

Neurketa guztien datuak gorde eta kudeatzeko plataforma.

Zuzendaria | Olatz Altuna
(Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak | Borja Fernández,
Irati Montero eta Unai Martínez
(Skootik)

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Hizkuntzen erabileraren neurketen datu basea

Datu-base berriak, besteak beste, datuen antolaketa hobea eta prozesaketa ahaltsuagoa erraztuko du. Erabileran eragiten duten aldagaien azterketarako aukerak zabalduko ditu eta datuen analisia aberasteko adimen artifizialean oinarritutako tresnak integratuko ditu.

Hizkuntzen erabileraren neurketak hainbat eremutan egiten dira, duela 30 urtetik. Nagusiki kaleko erabilera behatu izan da, baina, esate baterako, ikastetxe eta unibertsitateak, kirol-entrenamendu eta partidak, lantokiak, edota ospakizun eta jarduera bereziak (EuskarAbentura, Ikastolen aldeko festak, eta abar) ere neurtu dira. Honela, urte hauetan guztietan milaka datu jaso izan dira. Orain arteko neurketen informazioa jaso, ustiatu eta eskaintzeko baliatu izan den datu-basearen teknologia zaharkitua geratu da. Tresna eraginkorragoa, teknologikoki aurreratuagoa eta euskararen erabilera zertan den ezagutzeko premia berrietara egokitua sortuko da.



3.13

Euskaren eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri emateko adierazle-sorta.

Bulegoko langilea | Olatz Altuna

Euskararen Adierazle Sistema

Era planifikatuan eta sistematikoan diseinatu eta modu iraunkorrean eta antolatuan datuz elikatuta eta eguneratuta dago sistema. Proiektuak ibilbide luzea du, izan ere, 2013an abiatu ziren prestatze-lanak. 2015-2017ko aldian garapen teknikoari ekin zitzaion. Soziolinguistika Klusterra hastapenetik aritu da aholkularitza teknikoa eskaintzen.

2023an, jarraipen teknikoa egiteaz gain, adierazle berriak proposatu dira ingurune digitalean eta hezkuntza arloan; Elhuyarren gidaritzapean genero ikuspegia txertatzeko proposamena landu da; eta, 2024an argitaratuko den urtekariaren diseinua egin da.

- <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/euskararen-adierazle-sistema-eas/>
- <https://www.euskadi.eus/eas/>
- <https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema>
- <https://www.mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html>

Proiektuaren sustatzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara, Kultura eta Kirol Saila
- Arabako Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua



3.14

Nerabeen kirol entrenamenduetan eta partidetan euskara zenbat hitz egiten den kuantifikatzeko neurketak.

Bulegoko langilea | Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak | Juanjo Perez (Elhuyar aholkularitza)

Kirol eremuko hizkuntzen erabileraren neurketak

Eskola Kirola egitasmoa Gipuzkoako udaletako euskara teknikariek koordinatzeko duten Udalekin markoan kokatzen da. Testuinguru horretan, ikastetxeen kirol entrenamenduetan eta partidetan zein hizkuntza-praktika dauden aztertzeko eta, behar izanez gero, egoera hobetzeko dinamikak aktibatu nahi dira.

Hala, neurketak egin dira bost udalerrietan: Azkoitia, Orion, Legazpin, Urretxu-Zumarragan eta Zarautzen. Guztira, 29 kirol-talde aztertu dira.

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Azkoitia, Orío, Legazpi, Urretxu-Zumarraga eta Zarauzko udalak



3.15

Gazteen ahozkotasuna eta komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ariketa esperimentalaren ebaluazioa.

Bulegoko langileak | Olatz Altuna eta Imanol Larrea

Kirol(h)ariak proiektu pilotuaren ebaluazioan aholkularitza

Proiektuaren ebaluazio sistemaren osagaiak landu dira: adierazleak definitzea, informazioa jasotzeko modua eta informazioaren lanketa.

➔ <https://topagunea.eus/kirolhariak-2/>

3.16

*Kirol kluben bidez
kirol-aisialdi babestuan
eragiteko ikerketa
eta esku hartze
proposamenak.*

Zuzendaria | Jone M. Hernández
García (AFIT-Euskal Herriko
Unibertsitatea)
Bulegoko langilea | Maialen
Iñarra

Euskara Kirolkide

Haurren eta gazteen aisialdian eta sozializazioan, helduen aldetik, euskaraz funtzionatzen duen esparru bat eratzeko urratsak nola eman daitezkeen identifikatu nahi du proiektuak. Horretarako, ikerketa-ekintza parte-hartzaile gisa, kirol klubekin lankidetzan ari baita garatzen eta kirol alorrean eragiteko material/norabide beharrari erantzuten.

Alde batetik, kirol klubak euskararen babesgunetzat definitzeko lanketa teorikoa ari da garatzen. Horretarako, 2023an, hainbat ikerketa-mintegitan edota jardunalditan parte hartu da.

2021ko landa-lanaren bidez, kirol klubetako zuzendaritza-taldeen, langileen eta boluntarioen egunerokoan murgiltzeaz gain, beren hizkuntza-ideologiak, -praktikak eta -bizipenak ezagutu ziren. Orduan jasotakoa partekatzeko webgunea zabaldu zen. Eduki horretan oinarrituta, kirol klubek euskararen babesgune izateko urratsak eman ditzaten, klubetako arduradunei eta egiturari begirako tresna praktikoaren prototipoa osatu zen 2022an. 2023. urtean, tresna praktiko horrek proposatzen duen prozesuaren proba pilotuei ekin zaie hainbat kirol klubetan.

Azkenik, orain arteko ikerketa-ibilbidean oinarrituta, emaitzak zabaltzeko hainbat ekimen burutu dira: artikulua, jardunaldiak...

➤ www.sozioinguiстика.eus/euskarakirolkide

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea
- Bilboko Udala – Bilbao Kirolak



3.17

Testuinguru eta helburu desberdinetara egokitutako ikastaro eta mintegiak.

Ahozko komunikazioaren lanketa ikastaroak

IRALeren bidez "Ahozko hizkuntzaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altxotik" formazioa (17) eskaini da. Honen helburua da ahozkotasuna ikastetxe bakoitzaren testuinguru soziolinguistikotik aztertuta, ahozko hizkuntza lantzeko metodologietan sakontzea.

Beste bide batzuetatik etorritako formazio-eskaerei ere erantzun zaie. *Eleaniztasunerantz* programaren baitako prestakuntzak, edo aparteko eskaera egokituak (mintegi laburrak, ikastetxeetako ahozko hizkuntzaren mapa aztertzeko saioak...).

Bulegoko langileak | Olatz Bengoetxea eta Isabel Godinez
Partaideak |

- Ikastetxeetako irakasleak
- Hizkuntza Eskola Ofizialak



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako – Hezkuntza Saila
- Ikastetxeak

3.18

*Garapen metodologikoa
testuinguru erdaldunetako
ikasleen euskarazko
ahozko hizkuntzan
aurrera giteko.*

Berba-lapiko ikerketa proiektua

2017-2018 ikasturtean jarri zen abian bi ikastetxetan, Lehen Hezkuntzan. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu da euskararen ahozko kompetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan. Baita metodologia berritatzeko eta ikasleen garapen adierazleak identifikatzeko ere.

2023 urtean, alde batetik, EAEn antzeko testuinguruan dauden 17 ikastetxe berritara hedatu da egitasmoa (guztira 32 ikastetxe ari dira Berba-Lapikon parte hartzen). Hezkuntza saileko Berritzegune Nagusiko aholkulariekin elkarlanean eskolei prestakuntza eta gertuko jarraipena eskaini zaie. Beste alde batetik, metodologiak izan duen inpaktua ikertzen jarraitzen da. Aurten lau urteko ikerketa longitudinala martxan jarri da EAEko 3 ikastetxetan. Azkenik, Berba-lapikoko formakuntza tresna digitalen bidez bideratu ahal izateko, Moodle ikastaro bat sortzeko prozesua abiatu da.

Zuzendaria | Agurtzane Azpeitia Eizagirre (HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea)

Bulegoko langileak | Olatz Bengoetxea, Paula Laita eta Isabel Godinez

Partaideak |

- Berritzegune Nagusiko Aholkulariak (Hezkuntza Saila)
- EAEko 32 ikastetxe
- EHUko ELEBILAB ikertaldeko kideak



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza Saila

3.19

Euskal soziolinguistikaren eremuko hausnarketa eta ikerketa lanen lehiaketa.

Bulegoko langileak | Belen

Uranga eta Asier Basurto

Partaideak |

- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza



Txillardegí-Hausnartu soziolinguistika sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHU/UPVrekin elkarlana abiatzearekin batera, Txillardegí -Hausnartu Sariak izatera pasa ziren.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlarien lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

2023an hiru lan hauek izan dira sarituak:

- > **Lehen saria:** *Multinazionalen hizkuntza politika egokirako hainbat gako* (Eneko Barberena Mondragon)
- > **Bigarren saria:** *Euskararen geografia berria* (Garikoitz Goikoetxea Etxeberria)
- > **Hirugarren saria:** *Hiztunaren genero nahasmendua. Hizkuntza gutxiak, euskara eta generizazio prozesuak* (Jone M. Hernández García eta Marta Luxan Serrano)

Sarien Banaketa Ekitaldia 2023ko abenduaren 14ean izan zen UPV/EHU-ren Ibaetako Campuseko Txillardegí Aretoan. Bideoetan jasota geratu dira bertan saridunek egindako lanen aurkezpenak. Horrez gain, Bat aldizkariaren 2024ko zenbaki batean argitaratuko dira saritutako hiru lanak eta lehiaketan parte hartu duten beste zenbait.



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/zabalpena/txillardegí-hausnartu-sariak/2023-2/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.20

Gazteak mintzo: diskurtsoak eta etorkizunerako proiektzioak.

Bulegoko langileak | Asier Basurto eta Isabel Godinez
Partaidea | Plazara Kooperatiba

Euskal Soziolinguistika Jardunaldia

Euskararen biziberritzearekin loturiko soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatzeko eta proposamen berriak egiteko urteroko zita gazteek euskararekin lotuta dituzten bizipenen eta diskurtsoen inguruan antolatu da 2023an.

2023ko apirilaren 25ean Hendaiaiko Gaztelu aretoan egindako jardunaldian 14 eta 20 urte arteko gazteek euskararekin duten harremana ezagutu eta aztertzeari eskaini zaio. Hizkuntzekin lotuta dituzten bizipenak eta bizipen horietatik eraikitzen dituzten euskararen gaineko diskurtsoak ezagutzeko eta elkarrekin hausnartzeko topaketa izan da.

Nola ikusten dute gazteek euskararen egoera? Nola kokatzen dira auzi horren baitan? Zein toki du euskarak euren identitatean? Zein bizipen baikor eta ezkorrekin lotzen dute? Nola ikusten dute euskararen aldeko mugimendu soziala eta kulturala? Nola baloratzen dute erakunde publikoen jarduera? Zer diote helduon diskurtsoez? Nola iristen zaizkie? Nola proiektatzen dute etorkizuna?



Egitaraua:

- 09:15 Irekiera. Hendaiaiko Herriko Etxea, Euskararen Erakunde Publikoa, Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra
- 09:30 Ipar Euskal Herriaren egoera datutan. Eneko Gorri (Plazara Kooperatiba)
- 10:15 Gazteen gaineko zenbait ikerketaren gakoak. Miren Artetxe (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Maialen Iñarra (Soziolinguistika Klusterra)
- 11:15 Atsedena
- 11:45 Esperientzien bideo-bilduma. Seaska, Euskarabentura, Libertimenduak, Euskal Herria Zuzenean, Geruzak, Hezten eta Emun
- 12:15 Talde-ariketa
- 13:30 BAZKARIA
- 14:30 Mahai-ingurua: gazteak mintzo. Euskararekiko profil eta ibilbide desberdineko 4 gazte: Delia Delanne, Sofia Aldanondo, Aimar Jusue eta Oier Urreizti
- 16:00 (Gazteen) hizkuntza-ideologiaz mintzatuko gara? Jaime Altuna (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- 17:00 Itxiera

➤ <https://soziolinguistika.eus/jardunaldia>

Babesle-laguntzaileak:

- Hendaiaiko Herriko Etxea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



3.21

Soziolinguistikari buruzko euskarazko aldizkari zientifikoa, akademikoa eta dibulgatzailea.

Zuzendariak | Iñaki Martínez de Luna eta Estibaliz Amorrortu
Bulegoko langileak | Belen Uranga eta Isabel Godinez

Argitalpen Batzordea |

- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)
- Jone Miren Hernandez (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Inma Muñoz (Ikastolen Elkarte)
- Beñat Garaio (Soziolinguista)
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- Eneko Gorri (Plazara Kooperatiba)

Bat soziolinguistika aldizkaria

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik abiatu zuen BAT Soziolinguistika Aldizkari zientifikoa 1990. urtean. Gaur egun, Soziolinguistika Klusterrak du urtero aldizkariaren lau zenbaki ateratzeko konpromisoa; artikulua akademikoak eta zientifikoak, ikerketan oinarriturikoak, baita ikerketa-aplikazioko ereduak ere aurki daitezke bertan. Gainera, Euskal Herriko esperientzien dibulgazio lanak ere biltzen dira, baita unibertsitate-mailako ikastaro, jardunaldi edo topaketetako hitzaldietan oinarritutakoak ere.

Gai monografiko bati eskaintzen zaio zenbaki bakoitza. Nolanahi ere, zenbakia osatuz, beste gairen bati loturiko artikulua batek tokia izan dezake. Honako hauek argitaratu dira 2023. urtean:

- 126 Zenbakia: Txillardegi-Hausnartu Sariak (2022)
- 127 Zenbakia: Euskal Soziolinguistikan Ikerketa Gaztea
- 128 Zenbakia: Euskara Elkartearen Aktibazioa
- 129 Zenbakia: Hizkuntza Indigenak Biziberritzeko Esperientzia Batzuk

Gainera, 2023an lekuko aldaketa eman da aldizkariaren zuzendaritzan. Estibaliz Amorrortuk hartu du 12 urtez zuzendari izan den Iñaki Martínez de Lunaren tokia.



➔ <https://bat.soziolinguistika.eus/>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila)



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3.22

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.

Soziolinguistika Albistaria

Zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko sistemaren bidez, soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jarduera zientifikoak, akademikoak eta sozialak jarraitzen ditu Soziolinguistika Klusterrak. Egun, 100 iturri baino gehiago baliatzen dira intereseko informazioa biltzeko.

Jasotako informazio hori Soziolinguistika albistariaren bidez helarazten diogu euskal soziolinguistika komunitateari. Funtsean, hitzorduez, irakur-gaiez, eragileez edo ideiez elikatzen dugu Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduen sarea.

Hamabost egunean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 15-20 albiste inguruko bilduma zabaltzen da posta elektronikoz, sare sozialen bidez eta webgunean. Dagoeneko 156 zenbaki hedatu dira; 2023. urtean, zehazki, 135.etik 156.era.

Gainera, 2023an Albistariaren ebaluazioa egin da eta albistaria hobetzeko ekintzak gauzatu dira: albisteen iturriak moldatu eta diseinua eraberritu. Egindako ebaluazioak albistariak onarpen oso zabala dela eta hurrengo urteetarako hobekuntzak zeintzuk izan daitezkeen erakutsi du.

Bulegoko langileak | Paula Laita eta Asier Basurto
Partaidea | Leire Muxika (EMUN)

➔ <http://soziolinguistika.eus/albistaria>

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



4

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Elkarlana oinarri

4.1 **AURKEZPENAK, HITZALDIAK, FORMAKUNTZAK, KOMUNIKAZIOAK ETA SAIO PUBLIKOAK**

2023/01/26 - Errenteria

Gipuzkoa Arigune lantaldeari "Gipuzkoako kaleetan euskararen erabilera" formazio saioa.

2023/03/16 - Online

Kukulaisi elkarteari kirol entrenamenduetan hizkuntzen erabilera neurtzeko formazio saioa.

2023/03/21-22 - Bilbo

"Irakaskuntza kooperatibak 2030.urtean" Irakaskuntza Kooperatiben 5. Kongresua Konfekoop-ek antolatuta. "Euskararen erabilera zertan den" hitzaldia: Imanol Larrea.

2023/03/23-26 - Madril

EquiLing proiektuaren "Justicia sociolingüística y agencia de las y los hablantes" ikerketa-mintegian parte hartzea: Maialen Iñarra.

2023/04/03 - Errenteria

Gipuzkoa Arigune lantaldeari "Zeri erreparatu behar diogu Gipuzkoa arigune proiektua martxan jartzeko?" formazio saioa.

2023/04/28 - Bilbo

Partaidetza, ikerketa-ekintza eta garapen komunitarioari buruzko nazioarteko jardunaldietan "Hizkuntza Aktibazioa eta Gazteak Goierrin: Ikerketa-ekintza partehartzailea" ponentzia: Miren Uriarte eta Zesar Martinez (Parte Hartuz, UPV/EHU)

2023/06/21-24 - Cardiff (Gales)

Hizkuntza Gutxituen Nazioarteko Kongresuan (ICML) parte hartzea.

- "Observing oral language use: a methodological proposal" komunikazioa: Maialen Iñarra
- "How to change language habits in Wales and in the Basque Country: a joint perspective" komunikazioa: Imanol Larrea
- "New approaches to answer new research questions in minority-language contexts: Basque, Welsh and Irish" panelean parte hartzea: Imanol Larrea

2023/7/12 - Bilbo

EquiLing Euskadi proiektuaren jardunaldian parte hartzea. "Hizkuntza-aktibazioa eta gazteak Goierrin" Maialen Iñarra

2023/09/14 - Donostia

EHUren Uda Ikastaroetako "Euskara eta immigrazioa. Ikerketa baten harira..." ikastaroan "Zenbat buru, hainbat aburu" mahai-ingurua: Belen Uranga

2023/11/11 - Donostia

Ettxepare Institutuak antolatzen duen atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza ikastaroan "Zertan da euskalduntze prozesua? Euskararen bilakaera soziolinguistikoa" saioa

2023/12/14 - Iruñea

Udalerrri euskaldunetako haurrak eta euskara (UEH) ikerketaren emaitzak eta ondorioen aurkezpena eta egoera hobetzeko proposamenen lanketa. Euskara-bideak antolatuta, Nafarroako euskara teknikariekin saioa. Eider Saragueta (EHU), Iñaki Iurrebaso (UEMA) eta Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra).

4.2 BULEGOAN HARREMANAK, BILERAK ETA MINTEGIAK

2023/01/19

Lorna Williams buru zutela, Kanadako 50 doktore eta tesigilerekin mintegia. "Indigenous language revitalization in British Columbia and Canada" Pierre Elliott Trudeau Foundation.

2023/02/09

Maite Correa Coloradoko Unibertsitateko Linguistika Aplikatuko irakaslearekin eta Ameriketako Estatu Batuetan gaztelania ondare-hizkuntza gisa irakasteko prozesuez eta ikasleen hizkuntza-jarrez, -erabileraz eta -beharrez ezagutza trukatzeko bilera.

2023/05/26

Anik Nandi soziolinguistika ikerlariarekin barne mintegia Galiziako familietako hizkuntza-politiken gaineko ikerketari buruz.

2023/10/23

Xabier Arregi Hitz zentroko kidearekin barne mintegia hausnartzeko adimen artifizialaren eta hizkuntza teknologian eragin soziolinguistikoez eta ikerketarako aukerez.

2023/11/03

Carolina Gandulfo (Argentina, Universidad Nacional del Nordeste), Garabide elkartearen eskutik, hizkuntzen erabileraren kale neurketa ezagutzeko bilera.

2023/11/09

EHUko Soziologia graduko 40 ikaslek Martin Ugalde Kultur Parkeko hainbat erakunderen jarduna ezagutzeko aurkezpena.

2023/11/10

Bangorrekoin unibertsitateko Rhian Hodges eta Cynog Prys soziologoak, bi tesigilerekin Soziolinguistika Klusterra, bere proiektuak eta zenbait erakunde bazkidearen jarduna ezagutzeko bilerak.



4.3 KIDETZAK ETA PARTE HARTZEAK

"CLARIAH-EUS" Giza eta Gizarte Zientzietan euskara eta euskaraz ikertzeko aukera Europako ikerketa-azpiegituretan bultzatzeko egitasmoan parte hartzea. Asier Basurto

"HIGA" Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen Topaketaren (2023/7/17-21) Batzorde Zientifikoan parte hartzea. Maialen Iñarra

"Languages Lanean" kongresuaren Batzorde Zientifikoan parte hartzea. Imanol Larrea

Badalab berrikuntza laborategiaren Gobernu Batzordean eta Deliberazio Foroetan parte hartzea. Imanol Larrea

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren "Euskara eta Hizkuntza Aniztasuna Foroa" gogoeta taldean parte hartzea. Belen Uranga

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailaren "Euskara eta Hizkuntzen Markoa, Hezkuntza Tesiturguru Eleaniztunean" gogoeta taldean parte hartzea. Olatz Bengoetxea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Euskararen Foroa" gogoeta taldean parte hartzea. Imanol Larrea

InpAkta (Inpaktu Sozialerako Ikerlanen Akta) aldizkariaren sortze eta sustatze lana. Imanol Larrea

NPLD sarean parte hartzea.

- Zuzendaritza Batzordearen bilerak eta Batzar Orokorra. Imanol Larrea
- "Hizkuntzen kudeaketa Komunitate Eleaniztune-tako Osasun eta Gizarte Arreta arloan" NPLD-Coppieteres Campusa (2023/09/28-29, Helsinki). Asier Basurto





- UniNet unibertsitate eta ikerguneen azpi-sarearen sorrera eta garapena. Imanol Larrea

Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Sustapen Batzordean parte hartzea. Belen Uranga

The Minority Language as a Second Language. Challenges and Achievements liburuan Arrue ikerketari lotutako "Language proficiency and language use in Basque as a first or second language" kapitulua. Iñaki Martínez de Luna, Maialen Iñarra eta Pablo Suberbiola

4.4 **BESTE HARREMANAK**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta UEMAren "Euskararen arnaguneak: definizioaren eta erronken berrikuspena" txostenari ekarpenak.

Frisiako Fryske Akademyrekin gazteen eta kirolaren inguruan ikerketa-proiektu bateratu bat diseinatzeko saiakera.

Galeseko Iaith (Hizkuntza Plangintzarako Zentro Gastearra) erakundearekin elkarren proiektuen berri izateko harremanak.

Galeseko Ynys Môn irlan hizkuntzen erabileraren kale neurketa egiteko aholkularitza.

Irlandako Foras na Gaeilge-rekin hizkuntzen erabileraren kale neurketaren metodologia aurkeztu eta neurketa antolatzeko aholkularitza baloratzeko.

Kataluniako Omnium Cultural-ekin "Esport en català" proiektua ezagutu eta hizkuntza-ohituren aldatetarako metodologiak barneratzeko aukerak atertzeko harremanak.

Mikel Gartziaarena (DREAM-EHU) ikerlariarekin, Eskoletako Hizkuntzen Mapa proiektuko metodologia kontrastatzeko.

Osakidetzako Euskara Zerbitzuaren "Osakidetzako profesional euskaldunak identifikatzeko sistemaren inguruan" hausnarketan ekarpenak.


Plataforma per la Llenguari aholkularitza Andorran hizkuntzen erabileraren kale neurketa egiteko lehia-ketan parte hartzeko.

Quebecoko McGill Unibertsitateako CRIEM (Centre de Recherches Interdisciplinaires en Études Montréalaises) ikergunearekin harremanak erakundeek elkar ezagutzeko eta elkarlan aukerak aztertzeko.

Tokikom-ekin Matx.eus proiektua ezagutzeko bilera.


Txillardegiren "Hacia una Socio-Lingüística Matemática" liburuaren eskuizkribua Jakin Fundazioaren esku uztea, bere digitalizazioa eta kontserbazioaz arduradain.





BALANTZE EKONOMIKOAREN LABURPENA


Bazkide, lankide, finantzatzaile eta erabiltzaileekin gardentasunez jokatzeko dugun konpromisoari erantzunez 2023ko jardura ekonomikoa laburtzen duten datu batzuk eskaintzen dira jarraian.



- Pertsonal Gastua
- Gastu Orokorrak
- Proiektutetako Kanpo Zerbitzuak

GASTUAK

857.606 €



- Fakturazioa
- Eusko Jaurlaritza (HPS eta Hezkuntza Saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Bazkideak
- Erakunde pribatuak

SARRERAK

857.606 €



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2023

